

**8/2022 TXOSTENA, UZTAILAREN 19KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURAKOA****XEDEA: ENPLEGUAREN EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUA****I.- AURREKARIAK.**

Autonomia-erkidegoko araudiaren mailan, Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua arabera, autonomia-erkidegoari dagokio betearazpen- edo exekuzio eskumena alor honetan: lan-legeria, gaur egun Estatuak arlo honetan dituen lan-harremanei buruzko ahalmen eta eskumenak bereganaturik. Halaber, Estatuak lan-legeria betearazteko dituen zerbitzuak antolatzeko, zuzentzeko eta gainbegiratzeko ahalmena, Estatuaren Goi-ikuskaritzaz bat, lan-baldintzak gizartearen garapen- eta aurrerapen-mailari egokitzen saiatuz eta langileen kualifikazioa eta prestakuntza osoa bultzatuz.

Era berean, Estatutuaren 10. artikulua zehazten du Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela ekonomiaren bultzapen eta aurrerabidearen eta Euskal Herriko ekintza ekonomikoaren plangintzaren arloan, ekonomiaren antolaketa orokorraren arabera. 9. artikulua, berriz, ezartzen du ezen euskal botere publikoek, beroriei dagozkien alorretan, bereziki bultzatuko dutela bizitzeko eta lan egiteko baldintzen hobekuntza ekar dezakeen politika, eta neurriak hartuko dituztela enpleguaren hazkundera eta ekonomiaren egonkortasuna sustatzen laguntzeko.

Gainera, azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuak Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia jasotzen zuen, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-prestakuntzaren arloan lan-legedia exekutatzeko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa.

Bestalde, Enpleguaren Legearen testu bateginak, zeina urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi baitzuen, Enplegu Sistema Nazional bat ezartzen du, deszentralizatua eta Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoaz eta Autonomia Erkidegoetako Enplegu Zerbitzu Publikoaz osatua.



Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoak enplegu-politika aktiboak kudeatzeko sistema bat ezartzen da, eta, horren barruan, nabarmentzekoa da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren sorrera, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legeak eta, ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legeak arautua.

Arauk aukera eman zuten zuzenean kudeatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika aktiboak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen– 6.1.a) artikuluari jarraikiz, Lan eta Enplegu Sailari dagokio honako hau: «Enplegu-politika, eta enplegurako lanbide-heziketa, dekretu honen 10.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzatza izango du, betiere zerbitzu horren erantzukizunen barruan».

2022ko ekainaren 23an, Lan eta Enplegu Sailak Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuaren proposamenari dagokionez egin zuen txosten-eskaera sartu zen.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: DNCG_LEY_415/22_03).

II. – AURRETIAZ KONTUAN HARTZEKOAK. APLIKATZEKO ARAUDIA ETA TXOSTENA EMATEKO ESKUMENA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikulua agintzen du kontsulta-organoen nahitaezko txostenak eta irizpenak eskatuko direla izapide hori arautzen duten xedapenek zehazten duten unean eta eran.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluen a) letraren 1. zenbakian xedatutakoari jarraikiz:



«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Honako hauei buruz nahitaez informatzea:

1.– Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Sektore publikoko erakundeak sortzeko xedapen-proiektua den arren, kontratazio publikoan ere eragina duenez, txosten hau onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluaaren arabera.

III. JURIDIKOKI KONTUAN HARTZEKOAK.

1. artikulua lege-aurreproiektuaren xedea zehazten du. Hau da, hain zuzen: «*Lege honen xedea da pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko dituzten eskubideak eta betebeharrak definitzea, Euskal Enplegu Sarea sortzea, eta haren zerbitzu-zorroa eta kudeaketa antolatzea.*

Orobat, xedetzat ditu Euskadiko enpleguaren arloko eskumenak, gobernantza-eredua eta enplegu-politika publikoen plangintza, parte-hartzea eta finantzazioa definitzea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua arautzea».

Honako zati hauek ditu legeak:

- Zioen azalpena.
- Xedapen-zatia, 6 titulutan antolatutako 85 artikulurekin.
- Hiru xedapen gehigarri.
- Bi xedapen iragankor.
- Xedapen indargabetzaile bat.
- Lau azken xedapen.

Kontratazio publikoari buruzko aipamenei dagokienez, 18. artikulua aipatu behar da, enplegu-politika publikoak garatzeko lankidetzari buruzkoa. Artikulu horren 1. apartatuan honako hau ezartzen da:

«Enplegua bilatzeko (...) eta enplegu-politika publikoak ezartzera bideratutako beste edozein programa garatzeko, Euskal Enplegu Sareko entitateek, beren



artean edo beste entitate publiko eta pribatu batzuekin, jarduera-protokoloak, lankidetzak-hitzarmenak eta esparru-akordioak sinatu ahal izango dituzte. Horrez gain, dirulaguntzak eman eta administrazio-kontratuak egin ahal izango dituzte, bai eta zuzenbidean onartutako beste edozein negozio juridiko ere».

Nolanahi ere, gomendatzen da hau ere barne hartzea: «Azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat (Sektore Publikoko Kontratuena, 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenen, 2014ko otsailaren 26koen, transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora)».

Gainera, 18. artikulua 2. apartatuak zera dio: «Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa kudeatzeko lankidetzak 44. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko da». Ildo horretan, 44. artikulua 2. apartatuak jasotzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erakunde pribatuekiko lankidetzak-esparrua ezarri ahal izango duela, aipatu formulen bidez, 18. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe.

44.2 artikulua a) letran erreferentzia egiten zaie Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 219. artikulutik 222.era bitartekoei, esparru-akordioei buruzkoei. Nolanahi ere, gomendatzen da hura ez jasotzea, azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat etortzearen aipamena bakarrik (Sektore Publikoko Kontratuena, 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenen, 2014ko otsailaren 26koen, transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora). Ildo horretan, adierazi behar da esparru-akordioa kontratazio publikoa teknikoki arrazionalizatzeko sistema bat dela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen II. liburuko I. tituluko II. kapituluan arautzen dela, eta, kontratazio-organoak denbora-tarte jakin batean esleitu nahi dituen kontratuak bete beharko dituzten baldintzak finkatzeko, enpresaburu batekin edo batzuekin akordioa egitea dakarrela. Beraz, kontratazio-metodo berezi bat da, esparru-akordioen katalogo elektronikoaren bidezkoa, eta, horren bidez, hautaketa-prozedurarik egin gabe egiten da kontratazioa, betiere kontratatu beharreko ondasunak eta/edo zerbitzuak akordio horren parte badira.

44.2 artikulua b) letran kontratu irekiei buruz hitz egiten da; horiek, bada, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoak babesten ditu. Horren arabera: «Lege honetan ezarritakoa ez da oztopoa izango autonomia-erkidegoek, esleituta dauzkaten eskumenak baliatuz, legeak eman ditzaten;

izan ere, kontratuez bestekoak diren tresnak artikulatu ahalko dituzte arlo sozialeko beharrianak betetzera bideratutako zerbitzu publikoak emateko».

lido horretan, 1. arauak kontratu irekien oinarri arautzaileen kasuan aplikatzeko printzipioak jasotzen ditu, 9/2017 Legean ezarritakora egokituko direnak, eta 4. arauak zehazten duenez, «sektore publikoko kontratuen legeriaren printzipioak aplikatuko da zalantzak eta hutsuneak ebazteko», beraz, aipatutako 9/2017 Legea osagarri gisa aplikatuko da.

Bestalde, 4. arau horren idazketa aldatzea proposatzen da, kontratu irekien garapenean planteatutako zalantzak eta hutsuneak nola eta nork argituko dituen jakiteari buruzko araua osatzeko, zehaztugabea baita.

3. apartatuan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lankidetzaz hitzarmenak bitartekaritzaz zerbitzuei dagokienez erabili ahalko dituen formulak zehazten dira, «sektore publikoen kontratuei buruzko legerian xedatutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, baldin eta dagokion gaia bere esparruan sartzen bada».

5. apartatuari dagokionez, zehazten denez, «Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, foru-aldundiek eta udalerriek lankidetzaz sustatuko dute, zerbitzu batzuen inguruko eskumen konkurrenteak daudenean, zerbitzu horien kudeaketa ordenatua eta osagarria lortzeko, eta kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeko sistemak erabili ahal izango dituzte, betiere enplegu-zerbitzuen edukiarekin bat badatoz». Idazketa aldatzea gomendatzen da, atal horretan zer eskumen konkurrenterik egiten dion erreferentzia zehazteko.

Bestalde, 53.5 artikulua zehazten duenez: «Artikulu honetan xedatutakoak hala izanik ere, kontuan izango dira hitzarmenen bidez, Euskal Enplegu Sarearen zorroko zerbitzuak kudeatzeko sinatutako kontratuen bidez edo ez betetzearen ardura duen administrazioari edo erakundeari emandako dirulaguntzen bidez hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik aplikatzekoak diren ondorioak». Kontratuei dagokienez, honako hau gehitzea proposatzen da: **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako araubidearen mende egongo dela, zehazki, aipatu Legearen bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. atalaren (Administrazio-kontratuen ondoreak eta administrazio-kontratuak betetzea eta azkentzea) mende (188. artikulua eta hurrengoak).**



Gainera, 79.2 artikuluan zera adierazten da: «Dagozkion eginkizunak betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak behar diren administrazio- eta xedapen-egintzak eta ekonomia- eta finantza-eragiketak egin ahal izango ditu; gainera, hitzarmenak eta kontratuak egin ahal izango ditu, eta bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten dirulaguntzak eman eta haien oinarri arautzaileak onartu». Idazketa argiagoa izan dadin, komeni da apartatu edo letra desberdinetan zatitzea, bereiz jaso dadin hitzarmenei eta dirulaguntzei buruzko edukia, eta kontratuei buruzkoa.

Azkenik, 83. artikulua «Euskadiko Ogasun Nagusiaren gai propioei buruzko araubide juridikoa» arautzen du. 1. apartatuan zera xedatzen da: «Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ekonomia-, ondare-, kontratazio-, aurrekontu- eta finantza-araubidea zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikatu beharreko lege-xedapenetan ezarritakoa izango da, hurrengo paragrafoetan ezarritako baldintzetan». Idazketa Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta onartu berri den Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean jasotako araubidea berariaz aipatuz osatzea gomendatzen da, 83. artikularen 2. eta 4. apartatuetan berariaz egiten den bezala.

3. apartatuan bere eginkizunak betetzeko behar dituen ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko eta eskuratzeko araubidea arautzen da, eta, zehazten denez, «kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritakoa izango da, hargatik eragotzi gabe 44.2 artikuluan ezarritakoa». Azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin (Sektore Publikoko Kontratuena, 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenen, 2014ko otsailaren 26koen, transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) bat etortzearen aipamena barne hartzea proposatzen da.

IV. ONDORIOAK

Lege-aurreproiektuaren edukiak aintzat hartzen du sektore publikoko kontratazioaren legeria, arlo horri dagozkion analizatutako alderdiei dagokienez; izan ere, oro har, lege horren mende jartzearen formula erabiltzen du.

Horregatik guztiagatik, eta txosten honetan bildutako oharra aintzat hartuko dituzuelakoan, Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuaren aldeko irizpena ematen du Batzordeak.



KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN IDAZKARI Begoña Ensunza Camposek ZIURTATZEN DU kide anitzeko organo horretako osoko bilkurak, 2022ko uztailaren 19ko saioan, aho batez erabaki duela txosten hau onartzea.

Dagokion lekuan hala jasota gera dadin, agiri hau igorri dugu Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 19an

Ontzat emana

PRESIDENTEA

David Álvarez Martínez